



Comunidades Cristianas Fe y Justicia
Fede eta Justizia Kristau Komunitateen Elkarte

KANPO LAGUNTZA

FEDE ETA JUSTIZIA ELKARTEAN

Bilbao, 2002ko uztailaren 31



1. SARRERA

Gure Elkarteak lortu nahi du, besteak beste, kanpoko elkartasuna garatzea laguntza ekonomikoa behar duten aparteko egoerak, pertsonak, mugimenduak, taldeak edota elkarteekin. Laguntza hau baliogarria izan behar da bai egoera kritiko bat hobetzeko, bai injustizia sortzen duten zergati estrukturalak gainditzeko ekintzak bultzatzeko

- Fede eta Justiziak ulertzen duen solidaritate ekonomikoa ez da maila pertsonalean edo familiarrean bete behar, baizik eta komunitate bezala. Hau da, komunitate bezala gure laguntza eta solidaritatea erakutsi behar dugu.
- Ez gara solidaritatea isolatuta bizi dugun indibiduen multzoa. Baizik eta eliz gunea fedea eta justizian bizitzeko bere solidaritatea erakutsi behar duena komunitatetik kanpo. Kontua ez da ekintza solidarioak egitea baizik eta solidarioak izatea. Komunitate legez gizartea zuzenago eta solidarioago eraiki nahi dugu.
- Zehazki, urteroko diru kopuru erregular bat esleitzen dugu kanpo laguntza solidario honetarako, munduan lankidetzeta eta justizia bultzatzen dutenekin bat egiteko asmoarekin.

2. PROIEKTUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Kanpo laguntza nori eman erabakitzeko unean ondorengo irizpideak iradokitzen ditugu agertzen diren hurrenkeran:

1. Behartsuenen alde egiturazko aldaketak helburutzat dituzten proiektuak.
2. Talde-behartsuen garapen pertsonala eta soziala bultzatzen duten proiektuak.
3. Hirugarren munduko herrietan egiten diren proiektuak.
4. Baldintza zehatzetan maileguak eskatzen dituzten proiektuak hobetsiko dira diru-laguntzak edo berreskuratuko ez diren dirulaguntzak eskatzen dituztenen gainean.
5. Giza bultzapena, heziketa, autonomia, sexu berdinketa, hartzaileen parte hartzeko aukera, etab bultzatzen duten proiektuak.
6. Laguntza proiektuak larrialdiak baretzeko natura hondamendiak, gerlak, etab.



3. BETEBEHARRAK

Laguntza eskatzen duten proiektu guztiei eskatuko zaie: helburu, egitarau, garapen eta ebaluaketa ondo aurkeztuak eta arrazoituak izatea. Baita laburpena izatea.

4. EKITEKO IRIZPIDEAK

1. Urteroko dirulaguntzak ematea bitan izango da urtean zehar maiatzean eta azaroan.
2. Urteroko kanpo dirulaguntzetatik %25a gordeko da larrialdietarako. Holako egoeratan Gobernu Kontseiluak hartuko du erabakia bere lehenengo batzarrean edo oso egoera larria bada, gobernuak aukeratutako pertsonak hartuko du erabakia.

Maileguak hurrengo baldintzapetan egingo dira:

- Interesa KPI (Kontsumorako Presioen Indizea) baino handiago ez izatea
- Dirua itzultzeko epea bi urtetakoa izango da. Hau berrizta daitekeela.
- Maileguaren baldintzak azaltzen dituen idatzizko agiri edo kontratu pribatu egotea.
- Kontratuak dirauen bitartean proiektuaren berri ematea.

Bilbao, 2002ko uztailaren 31



**BURUTUTAKO KANPO LAGUNTZAK
(2000/04 AROA)**

1. BANATUTAKO ZENBATEKOAK

URTEA	LAGUNTZA KOPURUA	ZENBATEKOA	
		Pezetak	Euroak
2000	8	6.785.000*	40.800
2001	5	4.800.000	28.915
2002	5	4.930.000	29.700
2003	4	2.929.000	17.643
2004	6	4.880.400	29.400
GUZTIRA	28	24.324.400	146.458
BATEZBESTEKOA	5/6	4.865.00	29.300

(*) Larrialdia Venezuela

2. LAGUNTZA JASO DUTEN ELKARTEAK

1. Alboan
2. Cáritas Diocesana de Bilbao
3. Cáritas Internacional
4. Fundación Pueblo Indio
5. Grupo Misioneros Vascos
6. HOAC (Fondo de Solidaridad Internacional)
7. Meninos e Meninas de Rua (AVMMR)
8. Misión Verbo Divino
9. Mugarik Gabe
10. Movimiento 0,7
11. REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria)
12. SAUCE (Solidaridad, Ayuda y Unión, Crean Esperanza)

3. LAGUNDUTAKO ALDE GEOGRAFIKOAK

ALDE ETA LURRALDE JASOTZAILEAK	LAGUNTZA KOPURUA
AFRIKA: Congo, Burundi	2
LATINOAMERIKA: Brasil, Nicaragua, Venezuela, Ecuador, El Salvador, Peru, Cuba, Guatemala, Colombia	14
ASIA: Afganistan, India, Hego-ekialdea, Camboya	4
EUSKAL HERRIA	2
BESTE ZENBAIT	3
LARRIALDIAK*	3
GUZTIRA	28

(*) Venezuela, Afganistán, Hego-ekialdea